

Aide

Aideko edo aidetikako ere esaten da. Euskal mitologiako munduaz-aparteko indarra da, mundu honen barruan eta ahalegin historikoan bere eragina duena eta gizon-emakumeen aldekoa nahiz kontrakoa gerta daitekeena.

Ik. Izadi-gurtza Euskal Herrian.

Aierua

Ik. Zoria, 1.

Ainena

Ik. Biraoa, 1.

Aingeruak

Jainkoaren inguruan, beraren mezulari eta zerbitzari gisa dabilzan izpiritu hutsek dira aingeruak. Grezierazko aggelos hitzetik dator, eta mezulari esan gura du.

Eskritura santuaren orrialdeek aingeru ugarien berri ematen dute, eta horietako bakoitzak *salbamen-historiako une aparteko eta garrantzitsuetan betetzen duen egin-kizun berezia aipatzen dute, hala nola, Gabrielelek *gizakundekoan betetzen duena.

Teologiak irudimen handia erabili du aingeruen inguruan, horien izaeraren, horien hierarkizazioaren inguruan, etab., sarritan irudimeneoak besterik ez diren diskisizio zorrotz eta amaiezinezkotan galtzeraino.

Laterango IV. Kontzilioak aingeruen izate benetako eta fisikoa definitu zuela badi-rudi ere, ez da inoiz argi egon Eskritura santuak nahiz eliz irakasleagoak horien benetako izana baieztatu nahi izan duten, ala horrelako apaingura oparoaren bidez adierazi nahi duten Jainkoak benetako harremanak dituela gizon-emakumeekin eta ez dagoela axolagebezian eta bakartasunean urrutiko zeruaren sakonetan.

Dena dela, hauxe da aingeruei buruzko irakatsiaren punturik nagusia: Jainkoak gizon-emakumeekin duen harreman eta komunikazioa irudi iradokiorretan adierazteko baliagarriak direla. Bestalde, hauxe da gauza ziurra: Idazteunak hain maiz darabilen "Jainkoaren aingerua" esakunea gehien-gehienetan eufemismoa besterik ez dela, Jainkoak bera adierazteko.

Hasieratik bertatik aingeru onen ondoan aingeru gaiztoak (aingeru eroriak edo *demonioak), Jainkoaren aurrean zintzo jokatu ez zutenak eta Luzbel-en gidaritzapean Jainkoarekin beren buruak berdindu nahi izan zituztenak, ageri dira. Aingeru onen arerioak dira horiek, *ifernura betirako galduak eta

gizon-emakumeak gaiztakerietara zirikatzen dituztenak.

Bai adierazmolde eta irudi ederrak, jainkozko bizia gudan bizkorreazteko, eta, aingeru gaiztoenengan, munduan betidanik erreinatzen duen neurrigabeko gaizkiaren misterioa azaltzeko! Hori ez bait da, irudikapen horren arabera, Adan eta Eba, gizadiaren lehen gurasoen hasierako tentaldiaren ondorioa baino.

Ik. Deabrua; Izpirituak.

Jesús Lezaun
Itz.: Paulo Agirrebaltzategi

Aingeru batek

Sin.: Angelus—a

Katolikoan artean oso zabaldurik egon den *otoitza, latinez Angelus hitzarekin hasten dena, eta aingeruak Andre Mariari eramandako *gizakundearen mezua gogoratzen duena. Euskaraz "Aingeru batek" hitzekin hasten da.

Egunean hiru aldiz: goizean, eguerdian eta arratsean, errepikatzen dute katoliko askok. Nekazal herrietan, kanpaia jotzeko ohitura zegoen, fededunei angelusaren ordua gogora erazteko. Euskal Herrian, joko-jaialdi tradizioaletan --bereziki pilota-txapelketetan--, eten egin ohi da oraindik joko eguerdiko hamabietan, "Aingeru batek" otoitza errezatzeko. Horren kontrako joerak sortu dira, ordea, sekulartasunaren izenean. Ik. Sekularpena.

Aingeru zaindaria

Sin.: Aingeru goardakoa

Gizon-emakume bakoitzarentzat Jainkoak izendatuta omen daukana, laguntzaile berezi eta begirale iraunkor izan dakion. Sineste honen aztarnak Biblian agertzen dira. Dan 10,13aren arabera, Herri bakoitzari ere bere aingeru goardakoa edo zaindaria xedatzen omen dio Jainkoak.

Ik. Aingeruak; Zaindaria.

Aingerukeria

Gizakien izaera eta izpiritu hutsena edo aingeruena nahasteko edo berdintzeko joera da, batez ere gizon-emakumeen *libertate morala absolutetsiz eta horren grina txarrak gutxietsiz.

Aintza

1. Sin.: Ospea; Distira; Gloria. Jainkoaren distira eta handitasuna, bere *agertaldietan eta mundu barruko egiteetan nabarmentzen duena. Jainkoaren beraren izena ger-